

Txango honetan Oka ibaiaren bi ibaiadar nagusi ezagutuko ditugu: Berrekondo eta Golako erreka. Berrekondo Mendatako Elexalde eta Albiz auzoen artean jaiotzen da eta Golako erreka, osera, Oiz mendiaren magalean.


Gernikako hirigunea atzean utzi eta Oka ibai ertzetik Ajangizko ibarra zeharkatu dugu lehenik, ortu eta baso artetik, harik eta Kanpantxuko zubira heldu arte. Hemen batzen du Okak Berrekondo erreka ura. Ibaiadar hau izango dugu bidelagun tarte luze batean. Errekan gora egingo dugu eta bidean Goikoerrot eta Estilotza erroten albotik igaroko gara. Lehen jauregia izan ohi zan, baina burdinola, errota eta zentral elektriko txikiaren lanak ere egin zituen. Estilotza, berriz, Mendatak Berrekondon izan duen errota bakarra da, gainontzeko guztiak Golako erreka ertzean egon baitziren. Estilotza albotik igaro eta berehala ezkerretarantz joko dugu, Berrekondo erreka parean dugun pista handi batetik, harik eta Albiz auzora igotzen duen herri-bide zaharra hartu arte.

Albiz auzoan ditugu Madalen eliza eta Albiztarren leinuko dorretxearen aztarnak eta jauregia.

Albiztik Golako erreka ertzean jaisten den pistan behera egingo dugu jarraian, GR 38tik -ardoaren eta arrainaren ibilbideetik-, Ikadia errota heldu arte. Zaharberitutako errota honek oraindik mantentzen ditu errotarriak eta errota martxan jartzeko makinaria. Zubi sendo batetik Golako erreka zeharkatu eta ezkerretara joko dugu, errekan behera, Berriondorantz. Bidean, Santa Eufemia ermita albotik igaroko gara. Santa honi gerriko minak osatzeko eskaera egiten ohi zaio.

Berriondon Donejakue bidearekin topo egingo dugu eta errepideetik, kontu handiz, Zarra auzoraino helduko gara. Zarra auzoa zeharkatu eta Elexalde-Arratzurantz doan bidean Montolan dorretxera desbideratzea gomendatzen dizuegu, ikuspegiak gozatzeko. Txangoaren azken zati honetan harritzko bide zaharrak eta baso ederrak ikusiko ditugu. Artzubiko zubi ederretik Golako zeharkatu eta Elexalde auzora igoko gara lehenik, jarraian Loiola auzora jaisteko.

FITXA TEKNIKOAK



16
km
LUZERA

285
m
MALDA



urdaibaiko paisaia

GOLAKO IBAIAREN ALBO BIETARA

Golako ibaiaren albo bietara hainbat altxor kultural eta natural daude gordetarik. Ibai ertzetik baso aberatsetan animalia ugari izango dute gordelekua. Artzubiko zubi ederraren erdian dagoen harri batek Arratzu eta Mendata arteko muga irudikatzen du. Zubi honen albo bietara ondare aberatsa ezagutzeko aukera izango dugu: Urdaibaiko harizti zabalena, Montolan dorretxe pentagonal bitxia, Erdi Aroko zubi honetara heltzen zen galtzadaren harritzko eraikina, errotak eta honi lotutako anteparak eta presak, San Tomas eliza, San Pedro ermita eta Konpostelako Santiagoraino heltzen den donejako bidearen kostaldeko ibilgua. Hau dela eta erraza izango da erromesen bat ikustea.



KUKUA (*Coccyzus canorus*)

maiatzean kuku eta san pedrotan mutu

Kukuaren kantu ozena udaberriaren igarlea izaten ohi da. Hegazti migratzaile hau negua Afrikan igaro ostean, Euskal Herrira heltzen da udaberrian. Lehenik arrak heltzen dira. Hauen da basoetan entzuten dugun "ku-ku" ozena. Esaera zahar honek dioenez San Pedroak eta gero, hegoalderantz joko dute.

kukuak txantxangorria du inude

Kukuak ez ditu inoiz bere kumeak hazten. Habi bizkarroia da. Txantxangorria, txepetxa, buztangorria... en habietan arrautza bizkor jarri eta alde egingo du. 11-12 egunen ostean, kuku erraldoi bat jaioko da eta honek batzuetan habikideak botako ditu, amaordearen arreta lortzeko. Egun batzuen buruan kumea inudea baino handiagoa izango da.



kukuak bere
izena du
kantatzen

hariztia

Zarra eta Elexalde auzoen artean edertasun handiko hariztia aurkitzen dugu. Ez du azalera handirik, baina Urdaibaien dagoen harizirik handiena eta onena da. XIX. mende bukaerako landaketa baten emaitza da, baina berezko bilakaera ekologikoa izan du et naturaltasun eta aberastasun handiko basoa bilakatu da.



ikurrak

- | | | | | | |
|--|------------------|--|----------------------|--|-------------------------|
| | Abiapuntua | | Taberna | | Eliza |
| | Helmuga | | Natura2000sarea | | Ermita |
| | Garraio publikoa | | Ikuspegi panoramikoa | | Dorretxea |
| | Turismo bulegoa | | Atsedengunea | | Naturgune interesgarria |
| | Aparkalekua | | Iturria | | Galtzada |